

BEZEROEKIN ERLAZIOA

Bezero erlazioari dagokionez, oso garrantzitsua da haiekin dugun erlazioa gardentasuna izatea, gure bezeroak gudan konfiantza eduki dezaten. Horren barruan zer nolako zerbitzuak eskaintzen ditugun adieraziko dugu.

Hauek dira gure dendan eskaintzen ditugun zerbitzuak:



Kolorimetria sesioak, 10-15 minutuko iraupena izango dute eta bertan bezeroen koloreak kontuan izanda, bakoitzaren kolorimetria aztertuko dugu, hoberen geratzen zaizkien koloreak aukeratuz. Bezero batek bere gorputzera moldatzen zaion arropa aurkitzeko arazoak izanez gero, guk bere gorputzeko neurriak hartu eta bere gorputzera egokitzen diren talla eta arropak eskainiko dizkiegu.



Kafetegi postua, bezeroek zerbait jan edo edan nahi badute, toki bat eskaintzen dugu. Nahi duten denbora pasa dezakete eta bezeroekin batera datozen pertsonak arropa erosteko intentzioa ez badute, bertara joateko aukera izango dute.



Umeentzako toki bat ere izango dugu, bezeroekin datozen umeak jolasteko egongela bat izango da, txiki-park modukoa. Bertan, umeak nahi duten denbora pasa dezakete, gurasoak erosten dauden bitartean.



Jada komentatu dugunez, gure arropa guztiaren katalogoa online eskaintzen dugu, web-gune batean.

Bertan gure gmail-a eta telefono zenbakia atxikituta daukagu, bezeroekin komunikatu ahal izateko.

Hala ere, gaur egun sare sozialen bitartez komunikabide on bat izan dezakegu. Beraz, gurekin hitz egiteko aukera dute shorien bitartez.